

## **SUKALDARI-LAGUNTZAILE LANPOSTURAKO GAITUAK DIRENEN LAN- POLTSAREN OINARRIAK**

Santurtziko Begoñako Andra Mari Egoitzako Autonomiadun Erakundeko Artezkaritza Kontseiluak 2015eko martxoaren 31n ohiko saioan hartutako erabakiaren arabera.

### **1.- XEDEA**

Poltsa honen xedea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden eta Behargintzaren eskumen-eremukoak diren sukaldari-laguntzaile lanpostuan gaitutako pertsonen zerrenda baloratua izatea da, Begoñako Andra Mari udal Egoitzak lanpostu horretan unean uneko beharrak betetzeko.

### **2.- HAUTAGAIEN PROFILA**

Eskabidea egiteko gutxienez honako profila ezartzen da:

- Behargintzak eskumena duen lurraldean bizi izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egotea.
- Prestakuntzari dagokionez, gutxienez eskola-ziurtagiria edo baliokidea izatea.
- Gutxienez 6 hilabetezko esperientzia egiaztatua izatea sukaldari-laguntzaile lanpostuan hurrengo sukaldetan: ospitale edo kliniketan, zahar-egoitzetan, eskola edota catering enpresetan edota prestakuntzaren aldetik gutxienez I. mailako Sukaldari-laguntzaile ziurtagiria izatea.
- Elikagaien manipulatuzaile txartela izatea eta indarrean egotea.

### **3.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA**

Eskabideak aurkezteko lekua Udaletxeko Erregistro Nagusia izango da (Murrieta etorbidea, 6 48980 Santurtzi), eskabide orri normalizatua eta eskatzen diren gainontzeko agiriak aurkeztu behar dituelarik.

Eskabideak aurkezteko epea 2015eko maiatzaren 22an hasi eta 2015eko ekainaren 5ean bukatuko da.

Ezarritako epean aurkezten diren eskabideak erabat osatuta egon ezean edo eskatutako agiriak aurkeztu ezean, baztertzeko arrazoia eta hautaketa prozesuko balorazio-irizpideak ponderatzeko arrazoia izango da.

Oinarriok [www.santurtzi.net](http://www.santurtzi.net), [www.residencia-santurtzi.net](http://www.residencia-santurtzi.net), Udaletxeko Erregistro Nagusian eta "Behargintza Santurtzi" Enplegu eta Tokiko

Garapenerako zentroan izango dira. Azken hau oinarri hauek hedapen handiena izan dezaten saiatuko da.

#### **4.- ESKABIDE ORRIAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

- Eskabide orria beteta eta sinatuta (I. eranskina)
- Errolda-ziurtagiri eguneratua.
- Indarrean dagoen NAN/AIZ agiriaren fotokopia.
- Lanbiden alta emanda dagoela adierazten duen dokumentu eguneratua.
- Lanbiden erregistratuta egondako ziurtagiri eguneratuak.
- DSBE jasotzen duela egiaztatzen duen Lanbideren ziurtagiria, hala badagokio.
- Gutxienez eskola-ziurtagiria edo baliokidea duela egiaztatzen duen prestakuntza arautuaren fotokopia.
- I. mailako Sukaldari-laguntzaile ziurtagiriaren fotokopia, hala badagokio.
- Indarrean dagoen elikagaien manipulatuzaile txartelaren fotokopia.
- Lan biziaren eguneratua.
- Curriculum vitae eguneratua. Lanpostuan aurreko esperientzia izanez gero, esperientzia zehatz adierazita egongo da, kontratuen iraupena eta zein enpresatan ibili den azalduz.

#### **5.- BALORATZEKO PROZEDURA**

Ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabideen artean, proposamen tekniko baloratua egingo da, ezarritako aukeraketa- eta ponderazio-irizpideei jarriki.

Hortaz, lehenengo 20 hautagaiak aukeratuko dira puntuazioaren hurrenkeran.

Lan-poltsako pertsonen zerrenda Santurtziko Udaletxeko eta "Behargintza Santurtzi" Enplegu eta Tokiko Garapenerako zentroko iragarki-taulan argitaratuko da, gehienez eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik bi hilabeteko epean.

#### **6.- AUKERAKETA- ETA PONDERAZIO-IRIZPIDEAK**

##### **1.- Lanpostuan aurreko esperientzia izatea zahar-egoitzetan:**

24 puntu gehienez, 10 urte gehienez.  
Hileko 0,2 puntu

##### **2.- Ondoko taldeetakoa izatea: gehienez 10 puntu.**

- 45 urtetik gorako luzaroko langabea (Lanbiden azken 12 hilabeteetan gutxienez 6 hilabetez langabe egoeran): 2 puntu

- Luzaroko langabea (Lanbiden azken 18 hilabeteetan gutxienez 12 hilabetez langabe egoeran): 4 puntu
- 35 urtetik beherakoa: 2 puntu
- DSBE jasotzen duena: 2 puntu
- Lehen lanbidea: 2 puntu gehienez.

Adierazitako taldeetatik batean baino gehiagotan egonez gero, bakoitzari dagozkion puntuak batuko dira eta guztien batuketa izango da puntuazio osoa.

## **7.- POLTSAREN INDARRALDIA**

Poltsa hau hiru urtez egongo da indarrean gehienez.

## **8.- DATU PERTSONALEN BABESA**

Eskatzaileak eskabide orriaren aurkezpenarekin bere baimena ematen du eta eskarian dauden baldintza guztiak onartzen ditu.

Era berean, eskari honetan batzen diren Datu Pertsonalak bere onespenez jaso direla eta, datuok tratamendu automatizatua izatea eta Udal honek behar bezala onartzen dituen fitxategietan sartu ahal izateko baimena ematen du. Datuon erabilera Udalaren kudeaketa erabilerarako bakarrik izatea, euren lagapen edo komunikazioa beste Administrazio Publiko edo euren Erakundeetara egin ahal izango da beti ere urriaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera.

Interesdunek eskubidea dute datuak ikusteko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko, Legearen arabera. Eskubide horiez baliatzeko, idazki bat bidali beharko dute Santurtziko Udaletxera, Murrieta etorbidea 6, 48980 Santurtzi.